

Elkarrizketa:

HAIZEA GANZEDO

> "Klaseko lan bat bezala aurkeztu nuen komikia, ez nuen saririk jasotzea espero" 10.or



Kultura

Arloteen 50 urteko historia, liburu batean jaso 11. or.



Kirola

Aretako hemeretzigarren Pilota Txapelketa, hastear 13. or.

Kultura

Arabako ALEA astekariaren 9.000 ale banatuko dira Aiaraldean 7. or.

Iritziak:

TXEMA

URKIJU 2. or.

ISABEL

BOVEDA 6. or.

LUIS VIL 10. or.

EDORTA

MORENO 11. or.

GAIZKA

BARAÑANO 12. or.

ITZIAR

URKIJU 16.or



aiaraldea

eus

Aiaraldeko
hamabostekaria
2014 /// Abenduak 18 ///
OSTEGUNA
25. alea ///
Doan ///
www.aiaraldea.eus



ELKARRIZKETA : OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

"Aiaraldea elkartasunez eta euskaraz betetzera gatoz"

Laudio Haraneko Krosa: la 30 urte bidea auzolanean egiten



Laudio Haraneko Krosaren XXX. edizioa ospatu zen iragan igandean (abenduak 14). 1985an egin zen lehen edizioa, eta urte gutxiaren buruan mundumailako erreferentzia izatea lortu zuen. Bi aldiz lortu du Espainiar Estatu mailako kros onenaren izendapena, eta 7-8 urtez egon da mundu osoko kros onenen IAAF kategorian.

Bizi izan dituen garai onenetan ia 1000 parte hartzaile eta 2000-2500 ikusle biltzera iritsi da Ellakuriko zelaietako zirkuitoan. Marka handiak, are gehiago boluntarioez osatutako talde batek auzolanean prestatu-tako lasterketabatizateko. 12.or

www.aiaraldea.eus

EUSKARAREN
KOMUNITATEA
AIARALDEAN

POSTA HELBIDE BERRIAK

erredakzioa@aiaraldea.eus
harremanak@aiaraldea.eus
egunkaria@aiaraldea.eus



asesores

elkarlan

www.elkarlan.eu

Aholkularitza: Lanekoa, Fiskala, Kontabilitatekoa eta Juridikoa

Foru Kalea, 2 · AMURRIO · Tel. 945 39 33 51
Lamuza, 12 · LAUDIO · Tel. 94 672 74 28
Torre de Ugao, 12 · UGAO-MIRABALLES · Tel. 94 603 91 65



iritzia



TXEMA
Urkijo
ABOKATUA

Leihotik

Kirola Laudion

ragan denboraldian C.D. Laudio diok bizitako esperientzia tamalgarriak, zorra ez ordaintzeak eragindako taldearen jai-tsierarekin, Laudion kirolak bizi duen egoeraren inguruko hausnarketa bat iradokitzen dit. Bada, kit gauza bat dela C.D. Laudio diok izan zuen kirol erdi-profesionalaren alorra, eta beste gauza bat dela gainontzeko beste kirol taldeek bizi duten izaera guztiz afizionatua. Baina biek konpartitzen dutena baliabide ekonomikoaren beharra da; behar handiago edo txikiagoa, kasuaren arabera.

Agian gure buruei galdetu beharko geniokeena da ea zein den kirola praktikatzeko gure herrian duen garrantzia. Zein den gure instituzioek gai honi ematen dioten inportantzia. Lehia-kirolaren inguruan ari naiz, ez bakoitzak gure kabuz egin dezakegun horretan. Bada kirola sustatu beharreko balore bat? Hala bada, kirola egoera ezin hobe batean praktikatu ahal izan dadin egin daitekeen guztia egiten dugu? Jakitun naiz badaudela herrian indargabekitu diren kirol klubak, duela zenbait urte ehunka kirolari mobilizatzeko gai zirenak, giza baliabide ugariarekin baina laguntza ekonomiko gutxiarekin. Falta botatzen ditut ekarpen pribatuak jaso eta bideratzeko gai izango diren ekimenak, eta laguntza publikoak nahikoa ez direla uste dut, kirolari ematen zaion balio eskasaren seinale.

Kontuak ez datza gure herrian txapeldun handiak loratzean, baina deigarria da denbora daramagula inolako erreferentzia nabarmenik gabe, ez maila indibidualean ezta kolektiboan ere. Gazteenei begira motor bezala funtzionatu-ko lukeen erreferentzia bat. Osasuna da, eta kultura. Egoera hau berrikusi eta hobetzea gure instituzio publikoen beste ardureta-ko bat da.



Juan Mari
Erretiratu

Zerbait gehiagobai kontsumitzen dugula, baina gero eta gutxiago. Nire kasuan ez da diru faltagatik, osasuna zaindu beharra dagoelako baizik. Beti dago gabonetako tentazioetan erortzeko arriskua. Turroia eta antzeko jakiak beti daude hor, baina geroz eta gutxiago jaten dugu.



Ivan
Langabea

Bai, gehiago kontsumitzen dugu, noski. Egia da krisia dela eta, gutxiago kontsumitzen dela, baina ni behintzat beti saiatzen naiz inurriarena egin eta gabonetan gastatzeko diru bat aurrezten. Herrian, baina, gutxi kontsumitzen dut. Gehiagotan joan ohi naiz Bilbo aldera, eskaintza zabalagoa eta prezio merkeagoak daudelako.



GALDERA

Gabonetan kontsumoa igotzen dela uste duzu?

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.



Aurora
Dendaria

Ez da nabaritzen. Beti dago kontsumo gehiago, baina ez koheteak botatzeko modukoa. Jaitsiera egon da, normala da. Ez dakigu jendeak hirietara joateko joera duen edo, baina hemendik gutxienez ez da jende asko igarotzen. Bertaratzekotan, azken momentuko opariren bat erosteko hurbiltzen da jendea.



Rosa
Ileapaintzailea

Bai, nabaritzen da. Janarian eta oparietan batez ere, eta nire sektorean baita, beti dagoelako ilea apaintzeko tresnaren baten bila datorren norbait, opari moduan emateko. Dena dela, azken urteetan jaitsiera eman da kontsumoan. Jendeak erostera hirietara joateko ohitura duelakoan nago.



Marisa
Lore saltzailea

Lehen bai nabaritzen zela igoera kontsumoan, baina gero eta gutxiago. Eta ez nire denda bakarrik, gauza orokortu bat dela esango nuke. Herrian dagoen krisia da kausa, nik uste. Ikusi duzu zein triste dagoen herria? Ez da jenderik ikusten. Aurrekoan Mungia joan nintzen eta saltokietan askoz giro alaiagoa dutela ikusi nuen.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Tirada:

10.000 ale.

Maistasuna:

Hamabostekaria

Lege gordailua:

BI-1230-2013

Erredakzioa:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa

Posta elektronikoa:

egunkaria@aiaraldea.eus

agenda@aiaraldea.eus

agurra@aiaraldea.eus

Publizitatea:

publizitatea@aiaraldea.eus

Tlfnoa: 669 83 57 87

Web-gunea:

www.aiaraldea.com

Helbidea:

Nerbio Kalea 1, 3. esk.

Laudio. Araba. 01400

Telefonoak:

Tel: 94 656 85 54

Tel: 688 848 152

ERREDAKZIO OHARRA:

Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen zutabeetan, iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarriketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:



gutunak

Jendarte informearen eguna

Eneko Gastaka (Laudio)

Euskararen eguna", "HIES-aren kontrako eguna", "Emakumearen aurkako biolentziaren kontrako eguna"... Askok dira gaur egun urtean zehar zerbait ospatzeko ditugun egunak, baina ez ote dute euren helburua galdu?

Ez gaizki ulertu, ez nabil egun hauek defendatzen dutena gutxiesten, ezta egun hauek ospatzen dituztenen arrazoiak mesprexatzen.

Hala ere, badirudi munduko biztanleok egutegia omenaldiz bete izan dugun bitartean, aldarrikapen horiek hustu egin ditugula. "Informazioaren gizarte" deritzon honetan esaerak errealtatearekin egin du topo, eta irudi bat mila hitzek baino gehiago, edo mila argumentu eta ekintzek baino gehiago balio izatera igaro da.

Berriz ere diot: ez naiz egun hauei baliogarritasuna kentzera etorri, baizik eta balio horrek askotan jasaten duen lausotzea salatzerara, ni neu ere salatzerara. Gérard Imbert-ek dioen bezala, gizarte informe batean bizi gara, sistema ideologikoak eraitsi egin direlarik, mundu erreallarekiko erreferentziak, balioak diluituz.

Eta horren kontra borrokatu behar dugu, nazioarteko egun hauen helburuen alde.

#brigadak15

Garazi Zilonizaurrekoetxea Mendibil (Askapena)

Neguaeren hotzena iristear bada ere, datoren udarari so egin diogu Askapenako ki-deok eta gurekin batera herri ezberdinetako borrokak bertatik bertara bizitzera gonbidatu nahi zaitugu: badatuz #brigadak15.

Askok izan dira Euskal Herriko motxila konpromiso-z, gogoz eta irrikaz beteta beste herrietako borrokak ezagutu eta esperientziak elkar trukatzera joan-dakoak.

Brigadak herrien arteko elkartasuna baina gehiago dira azken batean; borrokan ari garen herri-arte-ko aitortza bat, jarrera eta ardura, arnasa, esnatzea.... Brigadista izatea gure herrien askapenean borrokan ari garen arteko harremanak eraikitzea da, hariak irutea.

Argentina, Uruguay, Venezuela, Bolibia, Palestina eta Saharar lurralde okupatuez gain, pasa den urtean, Gaztela, Aragoi eta Herrialde Katalanetara brigadak antolatu genituen aurrenekoz, Laudiotik bi joan ziren, eta aurreko urtean hiru. Udara honetarako, sare internazionalista hori zabaltzeko bidean, borroka esperientzia berriei aberasteko helmuga berriak lantzen ari gara.

Laster izango duzu informazio guztia www.askapena.org atarian.

_herriz herri

Aiaraldea



Uraren prezioa apur bat igoko da 2015ean. Argazkia: aiaraaldea.com

Aiarako Ur Partzuergoaren 2015erako aurrekontua onartu dute

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

1.769.700 eurokoa izango da Aiarako Ur Partzuergoaren 2015eko aurrekontua. Aurrekontua onartzeaz gain, datorren urterako udal eta batzar administrati- boentzako ur-tasa ere onartu zu-

ten bilkuran: 0.373 euro ordain- du beharko dute Artziniega, Amur- rio, Aiara, Okondo eta Laudioko Udalek ur metro kubiko bakoitze- ko. Horrek %0.19ko igoera supo- satzen du. Partzuergotik adiera-

zi dutenez, ur-horniduraren gas- tuak igo egin dira eta kontsumoa jaitsi, eta horrek tasa igotzea da- kar nahitaez, gastuak kitatu behar direlako.

Aurrekontu horrekin datorren urtean egingo diren inbertsioen artean, honakoak daude: Artzi- niegako urtegia eta Laudioko San Bartolomeko araztegia, Izoria- ko kontrol-gunera lotzea edota San Bartolome, Lexartzu eta Ar- tziniegako ur-biltegiak berritzea. 300.000 euro inbertituko dira lan horietan.

EAJ, aurrekontuarekin ados

Eusko Alderdi Jeltzaleak aurre- kontuen alde bozkatu zuen, bal- dintza batekin: bulego bat eroste- ko baliatuko ziren 337.000 euroak "ur-hornidura bermatzeko beha- rrezkoak diren azpiegitura batzuk" finantzatzeko erabiltzea.

Hala, diru hori 2016rako aurrei- kusia zegoen berrikuntza bat au- rreratzeko baliatuko dela azaldu dute jeltzaleek: Artziniegako pre- saren urrutiko aginterako kontro- laren birmoldaketa.

"Erregistroen kudeaketan ga- rrantzia duen elementu bat da, presaren segurtasunerako eta datuen kudeaketarako balio due- na", adierazi dute.

Hortaz gain, Alderdi Jeltzaleak

gaineratu du Laudioko araztegia- ren berriketarako data 2017tik 2016ra aurreratu dutela. Par- tzuergoko ordezkari guztiek boz- katu zuten aurrekontuaren alde, Laudioko Alkatea den Natxo Ur- kixo izan ezik, abstenitu baitzen.

Mahai instituzionala, Amurrio eta Laudion hondakin-urentzako araztegiak jartzeko

Nerbioi-goiko saneamendu pla- nean planteatzen ziren helburue- tarairisteko bide luzea dago orain- dik egiteko.

Azpiegitura horiek 2020rako martxan jartzea planteatzen zuen planak: kolektore-sarearen instalazioa eta hondakin-urentzako Laudio eta Amurrioko araztegien eraikitzea. Araztegi horiek 75 mi- lioi euroko inbertsioa beharko lu- ketela aurreikusia dago.

Horrelako inbertsio altuek Foru Aldundien eta Espainiar Go- bernuaren laguntza ekonomikoa behar dute. Horregatik, inplika- tuak dauden instituzio guztien ar- teko mahai bat osatzea onartu zen partzuergoko bilkuran. "Proiekt- ua ezin daiteke gehiago atzera- tu", adierazi zuen partzuergoko presidentea den Juanjo Yarrituk, "Europaren begi-puntuan gaude, eta Espainiar Gobernuak zein Jaur- laritzak badakite hori".

Arabako aurrekontuak luzatuko dira

ERREDAKZIOA |

Aitor Aspuru Saez

Javier de Andrés Ahalduen Na- gusiak prestatutako aurrekon- tuak ez dira onartu Arabako Ba- tzar Nagusietan. Horrek suposa- tzen du 2014koak luzatuko direla eta, eraginaren beldur agertu da SOS Laudioko Lamuza Parkea pla- taforma: "Beste behin ere, Laudio- ko interesak Foru Aldundian ema- ten den akordio faltaren biktima izateak larritzen gaitu". Izan ere, 2014ko aurrekontuetan ez da jaso diru kopuru garrantzitsurik parkea konpontzeko.

2015eko UDAL HAUTESKUNDEAK

JOSEBA VIVANCO
Artziniegako EH Bildu



"Kudeaketa ireki eta gardena egingo dugula izango da gure mezua"

"Gure hautaketa prozesuak jakin-mina eragin du"

***info:** Jo- seba Vivan- cori eginda- ko elkarriz- keta irakurgai webgunean



Udan Errusia eta Bielorrusiako umeak hartzeko deia

ERREDAKZIOA |

Bikarte elkarteak deia zabaldu du Aiaraldeko familiek Errusia eta Bielorrusiako umeak har ditzaten udan. Horretarako 658 71 35 52 (Araba) edo 605 70 90 19 (Bizkaia) deitu dezakete interesdunek. 30 harrera gehiago lortu nahi dituzte hurrengo udan, eta iazko 70 fami- liek errepikatzea. Guztira 100 gaz- te ekartzeko helburua jarri dute.



ASASAM elkartearen 25. urteurrena Osasun mentalaren esparruan lan egiten duen elkarteak bost kide omendu eta saritu zituen asteartean Laudioko Kultur Etxean. Argazkia: Aitor Burgoa.

Sanfilipo sindromeari aurre egiteko gala

ERREDAKZIOA |

Nuria y Raquel dantza estu- dioak elkartasun gala eskainiko du Amurrio Antzokian abendu- ren 27an, arratsaldeko 18:00etan eta 20:30ean. Sarrerak 7 euro ba- lioko du eta lortutako dirua Sanfi- lipo sindromearen kontrako iker- keta finantzatzeko erabiliko dute. Bizkaian eta Gipuzkoan 7 umeak pai- ratzen dute gaixotasuna.

maritierra
ETXeko ELIKAGAI EKOLOGIKOAK AMURRION

- Fruitak eta barazkiak kontserbak
- Lekaleak
- Esnekiak
- Zerealak, pastak, arrozak
- Ogi eta arrautzak
- Produktu begetarianoak
- Olioak
- Haurtxoentzako jakiak

- Gozokiak, galletak, eztia, marmeladak
- Edariak: ardoa, txakolina, garagardoak...
- Higiene eta norbera- zaintzeko produktuak
- Eta askoz produktu gehiago

GABONETARAKO SASKIAK

Gabon hauetan oparitu etxeko elikagai ekologikoei osatutako saskia.

Aiara kalea 6, AMURRIO Tlfnoa: 945 891 750 e-maila: maritierra.amurrio@gmail.com

Laguntza behar duzu informatikarekin...

QUICK PC REPAIR

tel.: 685701956
@: quickpcrepair@quickpcrepair.es

_herriz herri

Orozko



Azaroaren 17tik 21era baloratuko dituzte proiektuak. aiaraldea.com

Udal-hauteskundeetara aurkeztuko da Adie Taldea

ERREDAKZIOA I

Adie talde independenteak adierazi du datorren maiatzaren 24an egingo diren udal-hauteskundeetan parte hartuko duela. Egun Orozkoko udal-gobernuan den taldeak azaldu duenez, "orain lau urte moduan, hauteskundeetan aurkeztuko den hautagaien zerrenda eta hauteskunde programak ez dira taldetik irtengo, parte-hartze prozesu baten bidez baidir". Talde independenteak azaldu

duenez, Orozkoko edozein herritarrek parte hartu ahal izango du prozesuan.

Urtarrilaren 11a baino lehen izena eman, eta zein mailatan parte hartu nahi duten adierazi beharko dute. "Pertsona batek izena eman dezake interesatzen zaion Udalgai batiburuz iritzia emateko bakarrik, Udala kudeatzeko beste modu batzuk proposatzeko, zerrendako kideak aukeratzeko, hauteskun-

de-programan sartzeko proposamenak eskaintzeko edo alkatetza izateko".

Prozesua 4 etapatan banatuko du Adie taldeak; urtarrilaren 11tik martxoaren 15era eztabaida garaia irekiko dute. Fase horretan, Adiek etika-kodea deitu duena osatzea proposatuko dute: "Azken urteotan Orozkon politiko batzuek errepikatzerik gura ez dugun jarrera ustela izan dute, hori dela-eta, beharrezko irizten diogu talde politiko guztiek etika-kodea onartzea eta betetzeko konpromisoa hartzea," argudiatu du Idoia Camachok.

Hirugarren fasea apirilaren 5era arte luzatuko da eta orduan hautatuko da Adieren hautesle-zerrenda: "Zerrenda horretan hiru mailetakosartzeko interesa erakutsi dutenek hartuko dute parte, alegia, alkategaia izateko, zinegotzi-gaia edo zerrenda-gaia izateko prest dauden herritarrek".

Apirilaren 6tik maiatzaren 3ra bitartean hurrengo legealdirako Adieren lan-proposamena osatuko da, hau da, plataformak hauteskundeetan aurkeztuko duen programa. Azkenik, maiatzeko gainontzeko egunetan bosgarren fasean sartuko direla azaldu dute, hauteskunde kanpainan. Parte-hartze prozesuan izena emateko lau bide daude: Adieko edozein kideri jakinaraztea, adietaldea@gmail.com helbidera idaztea, Adieren egoitzako postontzia erabiltzea edo sare sozialak.

Aiara

Menoiotik Gorobelera igotzeko bideak konpondu dituzte

ERREDAKZIOA I Miren Ayesa

Menoio eta Salbantone herrietatik Gorobel mendilerroa iristeko errepideen egoera hobetzeko lanak lehiaketa publikoan atera ondoren, Aiara Ermandadeak Gasteizko Rodo enpresari esleitu zizkion obrak. Guztira, 4.000 euroko kostua izango dute eta helburua herri hauetarako sarbideak hobetzea da. Azken asteetan konponketa lanak egin dira errepideetan zeuden zuloak estaltzeko. Ur xirripak sor ez daitezen ura arroi letara eramateko sarrerak egin dituzte.

Luiaondo Berriak aldizkaria banatuko dute sei hilero

ERREDAKZIOA I

Luiaondoko Batzar Administrazioak "Luiaondo Berriak" aldizkaria martxan jarri du. Printzipioz bi ale argitaratuko dituzte urtero, bat Gabonetan eta bestea ekainean -Aste Kulturala dela eta-. Informazioa helarazteko hurrengo helbide elektrikoak erabili daitezke: lekubatxe@gmail.com.

Araba

Arabako txakolin ekoizleak pozik 2014ko uzta %41 igo eta gero

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Oso pozik agertu dira Arabako Txakolinaren jatorrizko deituraren ordezkariak aurtengo uztarekin. Guztira 537.800 kilo jaso dituzte eta 2012an egondako datuetatik hurbil geratu dira; 612.658 kilo. Orain arte eman den uztarik onena izan da 2012koa.

Iazkoarekin alderatuz %41 egoera eman da uztan, baina Jose Antonio Merino Arabako Txakolinaren jatorriko deituraren idazkariak azaldu du 2013koa oso txarra izan zela.

Aurtengo datu onak irailan eta urrian egondako eguraldi eguzkitsuaren ondorioa direla azaldu dute ekoizleak. Abuztuan jazotako eguraldia ez zen egokia izan mahatsarentzat eta bi hilabete horiek joera negatiboa zuzentzeko balio izan dute. Berez, ekoizle gehienak uzta jasotzen hasi ziren irailaren 24an eta urriaren 22an bukatutzat eman zuten.

Hala ere mahatsaren ziklo behar bezala arazoak eman ditu aurtengo eta mildia eta oidioak ikerketazorrotzak egitera behartu ditu ekoizleak.

Amurrio

Eufemia Gomez kirolaria omenduko dute Berdintasunaren Lasterketan

ERREDAKZIOA I

Aurtengo Amurrioko Herri Lasterketaren edizioa abenduaren 28an izango da eta Berdintasunaren Lasterketa deituko da. Horregatik Eufemia Gomezen lana omenduko dute. Eufemia Amurrioko atletismo taldearen lehen-dakari ohia izan zen, eta urte ugari aritu zen entrenatzaile gisa.

Oinkariak Atletismo Taldeak antolaturiko lasterketa Amurrioko Udalaren laguntzarekin eta Tubos Reunidos enpresaren babes ekonomikoarekin egingo da.

12:00etan hasiko da, 16 urtetik gorako korrikalarien lasterketarekin. Hauek 8,5km beteko dituzte

herriari hiru itzuli emanez: bi bira handi eta txiki bat. Lasterketa betetzeko ordu bat izango dituzte, beraz, maila guztietako korrikalariak parte hartu dezakete.

Nagusiek amaitutakoan, gazteek hartuko dute lekukoa: 13:00etan 9 eta 15 urte bitarteko umeen txanda izango da. Hauek zirkuitu txikiari bi bira eman beharko diote, guztira kilometro 1 egiteko. Eguerdiko 13:10etan txikientzako ordua izango da, 8 urte azpiko umeentzat hain zuzen. Lasterketak 500 metroko luzeera izango du, eta gurasoek ere parte hartu dezakete (umeentzako gurdiak erabiliz). Nagusientzako 400 toki daude eta 5 euro ordaindu beharko dute.

_iruditan



POP-UP STORE AMURRION: Azaroaren azkenengo asteburuan 1000 pertsona baino gehiago elkartu ziren Reforrean. Bertan Pop Up Store ekimena antolatu zuten eta merkatari, artista eta ekintzaileek bere jarduerak uztartu ez ezik gastronomia presente egon zen.



Okondo

Obra txikiak egingo dituzte bolatokian eta errepidean

ERREDAKZIOA I

Nahiz eta azkenaldian garrantzitsuak diren obrak egin dituen Okondoko Udalak -udaletxeak bukatuta daude eta Kultur Etxean epeak betez proiektu erdia gauzatu dute urte amaitu baino lehen-, lan txikiak ere abiatuko dituzte herrian.

Horrela, auzolanaren bitartez zenbait hobekuntza aurrekusi dituzte bolatokian; ura, elektrizitatea eta berogailua jarriko dute eta itxiera lanak ere egingo dira. Bestalde, lantegietatik igarotzen den errepideak konponduko dute, asfalto oso egoera txarrean dagoela ziurtatu du alkateak eta.

_herriz herri

Laudio

Gabonetako erosketak Laudion egiteko deia zabaldu du Udalak



ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru Saez

Laudioko Udalak "Laudio bizi! Bertan erosi, guztiok irabazi" kanpaina abiatu du. Ekimenaren asmoa da tokiko merkataritza sustatzea. Horretarako, herriko bizitza bultzada emateko beharrezkoa dela tokiko merkataria babestea nabarmendu du udalak.

Iñigo Martínez Cerrillo zinegotziak garbi azaldu du: "Herritarrei esan behar zaie: Laudion bizitzero, zergatik ez ditugu geure erosketak herrian egiten?"

Kanpaina Apill-ekin landu dute eta Perco mahaia ere horren alde agertu da.

"Laudio bizi! Bertan erosi. Denok irabazi" leloaren bitartez herrian erosketak egitearen aldeko apustua plazaratu nahi dute guztiek.

Kanpainak urtean zehar jarraitu izango badu ere, bereziki garrantzitsutzat jotzen du udaletik ekimenaren Gabonetan zabaltea. "Herritarrei helarazi nahi diegun mezua hurrengo da: gabonetako erosketak egiterakoan Laudion egin ditzatela", azaldu du Martínez Cerrillok.

Horretaz gain, Bilduko ordezkariak beste zenbait kontu aintzat hartu eta aipatu ditu hasieratik dauden jaiak direla eta: "Zinegotzi bezala ez diot Olentzerori ezer eskatuko, baina gurasoei eskatuko nieke gabonetako erosketak Laudion egin ditzatela, tokiko produktuak eros ditzatela. Umeei eta gazteei gabonetako jostailuak Olentzerori eskatzerakoan sexistak ez diren jostailuak eta euskeraz edo euskera bultzatzen dituen jostailuak eskatzen dituzte. Eta guztiei, gaizki pasatzen ari direnak ez ahaztea eskatuko nieke."

Urduña

Herri biltegia zabaldu dute, gauzak jaso eta banatzeko



Elikagaiak jasoko dira. Wikimedia

ERREDAKZIOA | Iñigo Mendiguren
Urduñako udalak Herri Biltzea zabaldu du. Anbulatorioaren azpiko solairuan kokatuta dago eta bi zerbitzu eskaintzen ditu helburu. Elikagaien banaketa eta objektuen biltzea.

Elikagaiak jasotzeko ezinbestekoa da Urduñan erroldatuta egotea eta Ongizateko Zerbitzuen Baseran eskatzen dituzten agiriak entregatzea. Azaldu dutenez, orain

arte Europar Batasuneko Elikagaien Bankutik soilik jaso dute janaria. Uztailek, ordea, Bizkaiko Elikagaien Bankutik ere ari dira produktuak jasotzen. Horrez gain, Urduñako udalak aurrekontu bateko zati bat bideratuko du familia horien beharretara, eskari handia baitago. Hala, oinarritzeko paketea osatzeko falta den esnea, lekaleak, pasta, arroza eta gailetak udalak erosiko ditu. Izan ere, Urduñan 148 familia dira RGI laguntza eskatu dutenak.

Bestalde, egoera onean dauden objektuak bildu eta eskatzen arabera banatuko dituzte: motxilak, jostailuak, etxetresna elektrikoak, arropa, oinetakoak... Egitasmoa bideratzeko "Bihurtze Gizarte Ekintzako Elkartea" sortu dute. Urtarrilaren 13tik aurrera astearteko egongo dira Biltzearen 10:00etatik 12:00etara gauzak jasotzen. Orduetara ez dadin parte hartzeko eragozpena izan Ongizate Zerbitzuen telefonora (688 828 025) ere deitzeko aukera egongo da.

Santa Luzian ur edangarria dute dagoeneko

ERREDAKZIOA |

Bukatu dira Laudio Santa Luzia auzora ur edangarria eramateko obrak. Orain arte inguruko iturburuetatik hartzen zuten ura auzoko biztanleek, baina modu horretan uraren kalitate eta kantitate nahikoa bermatzen ez zela adierazi du obra eta zerbitzuetako zinegotzia den Koldo Zaballak. Horregatik, bukatu berri den obrak ur edangarria Dubirisetik ponpatzea ahalbidetuko du.

55 urtetik gorakoentzako euskara klaseak

ERREDAKZIOA |

55 urtetik gorako herritarrentzako euskara ikastaroak abiatatu ditu Laudio Udaleko Euskara Arloak. Ikastaroa 120 ordukoa izango da (6 ordu astean) eta urtarilaren 19an hasi eta ekainaren 25an bukatuko da. Taldea osatzeko 8 lagun behar dira gutxienez, eta gehien jeta 16 ikasle izango dira. Ikastaroaren izena emateko: 946 726 722 - 663 194 177 telefonotara deitzeko aukera dago.

Bigarren eskuko denda irekiko du Caritasek

ERREDAKZIOA | Lucía Martín

Egun daukan arropategia larunbatean itxiko du Caritasek. Lau hilabetez itxita egongo da eta jarraian proiektu berri bati bide emango dio, bigarren eskuko arropa eskuratzeko gune berri bati, hain zuzen. Caritaseko arduradunek azaldu dutenez, "Bihotzdun gunea" izeneko espazio berri honetan, publiko guztientzat eskuragarri diren prezioetan erosi ahal izango dira jantziak.

Bainuetxeko lanpostuak kolokan daude

ERREDAKZIOA | Aitor Martínez

Urduñako Bainuetxeko langileen etorkizuna zalantzarik gabeko arabera. Izan ere, abenduaren 9an lanpostu guztien desegite espedienteak aurrera eramateko kontsulta saioa hasi zen. Langileen arabera, egoera Montenegro Taldeak bideratutako kudeaketa txarraren ondorio da. Taldea irailetik hartzen zuten lehiaketan aurkitzen da.

Busa antolatu dute euskal selekzioa ikusteko

ERREDAKZIOA |

Urduñako udalak Euskadiko eta Kataluniako selekzioen arteko futbol partida ikusteko autobusa antolatu du. Abenduaren 28an 20:30ean izango da futbolari arteko norgehiagoka. Autobusa, aldiz, 18:00etan abiatuko da suhiltzaileetatik. Itzulera Bilbotik 22:30ean izango da. Izen ematea kultur etxean egin behar da abenduaren 22a baino lehen. Bidaia prezioa 5 eurokoa da.

GUZURTEGI
JATETXEA · LOGELAK

LA PLAZUELA, 6 MAROÑO-ARABA
945 39 94 38 / guzurtegi@euskalnet.net / www.guzurtegi.com

USHUAIA (Geltokiaren aurrean) AMURRIO
Tel. 945 89 08 41
Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00 (ez dugu eguerdian itxen) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILEAPAINDEGI MISTOA · HAURRAK · PERFUMERIA · OSAGARRIAK

III. MARRAZKI LEHIAKETA
MARRAZTU EZAZU GABONETATIK GUSTUKOEN DUZUNA ETA SAR ZAITEZ
2015erako ILE-MOZKETEN SORTA BATEN ETA OPARI BATEN ZOZKETAN.
Kontsultatu baldintzak ileapaindegian
10 urte arteko haurrentzako lehiaketa.
• Marrazkiak aurkezteko epea: urtarrilak 3
edertasuna - sauna - solarium

_jendarte



ISABEL

Boveda
KULTURARTEKO ZUBIAK

_Hankamotz

Ausarten garaia da

Bizi dugun garai honetan, interes handia dago beldurra lau haizetara zabaltzeko. Hori, dena den, ez da kasualitatea; izan ere, beldurra da, ziurrenik, mugimendu disidente oro kontrolatu, menderatu eta geldiarazteko armarik baliosuena.

Hedabideak sistema neoliberalaren morroi dira, eta haien eginkizuna da gure artean izua zabaltzea. Terrorismoa, ebo-la, klima aldaketa, krisi ekonomikoa, dirua eta lana lapurtzen diguten "immigranteak" (Maroto jauna dixit) eta beste hainbat kontu baliatzen dituzte horretarako. Ukaezina da kontuan hartu beharreko arazoak direla, baina haiek tragedia eta mehatxu handi gisa aurkezten dizkigute. Ondorioz, beldurra, borrokatzeko gogorik eza, individualismoa eta konformismoa zabaltzen dira. Elkartasunik eza eta egoismoa nagusitzen dira, eta hala gizartearen arazoan aurrean entzungor egitera bultzatzen gaituzte. Kontrolatu eta menderatzen gaituzte; sistemaren eta geure buruen esklabo gara.

Euskal Herrian hainbat arlotan borrokatu izan dugu: gizartearen, politikan, ekonomian, lan-tokietan, nortasun-kontuetan... Ezinbestekoa da, beraz, borroka hori berpiztea lan-esparruan, auzoan, ikasketetan, aisialdian eta gainerako eremu guztietan, morroi gisa erabiltzen gaituen sistemari aurre egiteko. Herri-tarren arteko batasuna, horra hor sistemaren zutabeak kolokan jartzen dituen tresna. Inpotentziaren eta beldur-raren aurrean, beraz, elkartuta lan egiten dugunean pizten den botereaz eta indarraz jabetu behar dugu, eta bide horretan aurrera egin.

Geroz eta jende gehiagok erosten du Gabonetako Loteria, baina gutxiago gastatuta

Krisiak eragina izan du Gabonetako Zozketako dezimoen salmetan. Hala diote Aiaraldeko loteria saltzaileek. Hala ere, bezero kopuruan igoera bat eman dela uste dute saltzaile gehienek, erosle bakoitzak diru gutxiago gastatzen duen arren. Loterian gastatutako diruaren %30 Espainiar Estatuaren eskuetan geratzen da.



Zozketaren data gerturatu ahala, geroz eta jende gehiago bertaratzen da loteria erostera. Argazkia: Aitor Burgoa

ERREDAKZIOA I

Txabi Alvarado Bañares

Urtero data hauetan gertatzen den bezala, aurten ere abian da Gabonetako Zozketa Nagusiaren kanpaina. 2.240 milioi zozketatuko dira guztira Espainiar Estatu mailan, eta sari handia 4 milioi eurokoa izango da. Hau da, sari irabazlearen dezimoa erosten duenak diru kopuru hori jasoko luke.

Sozialki nahiko fenomeno esanguratsua ⁽¹⁾ izan ohi da Gabonetako Zozketarena. Baita Aiaraldean ere. Zozketan parte hartzen duen aiaraldear batek 40-60 euro artean uzten ditu loteria erosten. Hala diote eskualdean dauden loteriaren salmenta-puntuetako kideek.

Kopuru hori, baina, batzazbestekoa da. "Badago 600 euro gastatzen duenik ere", azaldu du Amurrión loteria saltzen duen Roberto Velezek, baina jende gehienak gastua "neurtu" egiten duela az-

pimarratu du. Gastu handiak egiten dituzten pertsonak jende askoren izenean erosten dutela iradoki ⁽²⁾ du Urduñan loterian saltzen duen Aranzazu Ortegak.

Hala ere, salmenten kopurua jaitsi egin dela azpimarratu dute saltzaileek, nahiz eta askok gaineratu duten bezero kopurua igo egin dela. "Bezeroetan igoera bat eman da, baina geroz eta diru gutxiago gastatzen da", azaldu du Orozkon loterian saltzen duen Isabel Olabarriak.

Saltzaile gehienek bat egiten dute salmenten jaitsiera azken urteetako joera delaren baieztapenarekin, eta krisi ekonomikoari egozten diote errua. Hala ere, Velezek azaldu du orain arte salmentak "nahiko suabe" joan direla, "ugaritzen doaz zozketaren data hurbildu ahala".

"Zortedun zenbakiak"

Gabonetako loteria erosterako orduan, baina, denetarikoa jendea

dagoela azaldu dute loteria saltzaileek. Badaude axola ez zaie-na zein zenbaki hartu, eta baita zenbaki mota konkretu baten bila doazenak ere.

"Jende batek 5, 7 edota 13 bezalako zenbakiak bilatzen ditu, baina %20a inguruk soilik egiten du halakorik, gehienei berdina zaie zein zenbaki hartu". Hala azaldu du Velezek. "Badago urte osoan zehar loteria erosten duen jendea. Jende mota hori da gehinetan zenbaki konkretu baten bila doana". "Jendeak datak erabiltzen ditu batez ere zenbaki bat edo beste bat aukeratzeko orduan", azaldu dio Amurrión Loteria saltzen duen Mariluzek.

Loteriako diru guztia, baina, ez da sarietan ematen. %30a Espainiar Estatutako Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren eskuetara doa. Hortaz gain, iaz loteriarri dagokion zerga berri bat jarri zen martxan: 2.500 euro baino gehiagoko sariei %20 kentzen diena.

Dena dela, urriak dira Gabonetako Zozketako Sari Nagusia Aiaraldean "erortzeko" probabilitateak. Estatu Espainiar osoan loteria salmenta kopuru berdinak egongo balira eta zenbaki guztiak salduko balira, sari nagusia Aiaraldeko norbaiten eskuetan erortzeko %0.0914ko probabilitatea egongo litzateke.

Hala ere, askok diote gauzabaz probabilitatea dela, ta beste bat zortea. Eta Aiaraldeak gehiago du bigarrenetik. Horren adibide dira 2009an "El Niño" zozketatik Aiaraldean amaitu zuten 60 milioi euroak, Laudio eta Orozko artean banatu zirenak. 56.306 izan zen zenbaki saritua.

Hiztegia: esanguratsua ⁽¹⁾, zeresana duena /iradoki⁽²⁾, intsinuatu

ZENBAKITA:

40-60

euro artean gastatzen du gabonetako loteria erostera doan jendeak batzazbestekoa

12

gabonetako loteriaren dozena bat salmenta puntu daude Aiaraldean

CALDERERIA/HERRERIA BENGAR
Koop. Elkarre. Txikia

Galdaragintza lanak, egitura metalikoak, herdoilgaitzak, aluminioa, forjak, ateak, balkoiak, barandak, itxitura metalikoak, obra publikoak, makineria konponketak...

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE

AMURRIO (ARABA) Aldaiturriaga poligonoa 3A pabiloia
945 10 13 14 - 605 74 31 96 caldereriabengar@live.com


·Kudeaketa Software·

·Cloud· ·Backup· ·Sareak·

·Telekomunikazioa·

algitech
informatika zerbitzuak

www.algitech.net · Tfno: 94.404 44 95



ARABAKO ONDAREA: HISTORIA ETA KULTURA, GOZAMENA



ARABA | ALAVA
GOZAMENA! | DA GUSTO!

► Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

► www.alava.net

Santa Maria Katedrala



Bibat Museoa



Arte Ederren Museoa



Añanako Gatz-Harara



Artium Zentro-Museoa



Vitoria-Gasteiz



Oroko Santutegia



Antoñana



Urizaharra



Artziniega



Kexaa




Sorginaren Trikuharria



Labraza

Elkarrizketa



“Aiaraldeko etxeak ilusioz eta euskaraz betetzera gatoz”



Irudiak: Arantza Escondrillas

Mendian duten baserrian elkarrizketatu ditugu MARI DOMINGI eta OLENTZERO. Lan eta lan ari dira, iristen zaizkien gutun guztiak irakurtzen eta bertan azaltzen diren opariak prestatzen. Lan asko egin behar duten arren, gogotsu ari dira. Abenduaren 24koa izango da egun handia. Egun horretan Aiaraldeko herrietan egongo diren kalejiretan parte hartuko dute biek, eta gauean etxez etxe joango dira ilusioa eta euskara banatzen.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Aste bat baino gutxiago falta da Gabonetarako. Urduri?

Olentzero: Bai, urduri. Urtero-urtero jartzen gara urduri. Ez da ez erronka makala ⁽¹⁾ aurrean daukaguna, ez horixe!

Mari Domingi: Baina, urduri egoteaz gain, pozik ere bageaude. Ederra da dugun misioa: Aiaraldeko, Euskal Herriko zein Munduko etxeak ilusioz betetzea. Horren aurrean, oso urduri egon arren, ez dago geldituko gaituenik!

Dena prest, beraz, abenduaren 24ko gauerako?

Mari Domingi: Oraindik detaile txiki batzuk zehaztea falta zaigu, eta oparien zaku guzti-guztiak oraindik ez daude beteta. Astoa kortatik atera eta apaintzea ere falta zaigu... egun hauetan zehar lan asko izango dugu Olentzero eta biok egiteko, baina lortuko dugu!

Eta gutun asko jaso dituzue?

Olentzero: Baaaaai, asko, asko.

Mari Domingi: Munduko txoko askotako haurren gutunak jaso ditugu: Afrikatik, Hego-Ameri-

“Aiaraldeko jendearekin batzeak ilusio asko ematen digu”

“Jostailu zahar edo hondatuak hartu eta gure lagun galtzagarriekin batera konpontzen ditugu”



katik edota Txinatik... eta baita Aiaraldetik ere.

Aiaraldetik zenbat gutun jaso dituzue?

Mari Domingi: Milaka. Izango dira 2000-3000 inguru. Oso anitzak denak: Ume, guraso zein aitona-amomene gutunak jaso ditugu eta!

Zer esango zeniekete oraindik gutuna bidali ez dutenei?

Mari Domingi: Lasai egoteko, oraindik denbora dute eta gutuna bidaltzeko. Hartu dezatela arkatx edo boligrafo bat eta animatu daitezela gutuna idatzi, marraztu edo irudikatzea.

Olentzero: Hori da! Eta berdin dio nola idazten duten. Ondo edo gaizki, trebe edo trakets ⁽²⁾, euskaraz egiten saiatzen badira ez dugu ulertzeko arazorik izango!

Kostatu zaizue horrebesteko opari lortzea?

Mari Domingi: Bai, opari asko dira eta! Baina apurka-apurka bagoaz gutunetan azaltzen diren zerrendetako gauza biltzen. Aiaraldeko dendetatik aritu izan



“Aiaraldeko dendetatik aritu gara opari askoren bila, eta inguruko ekoizleei ere gauzak eskatu dizkiegu”

“Urtero-urtero hartzen dugu parte Aiaraldean antolatzen diren kalejiretan”

gara opari horietako askoren bila, eta inguruko ekoizleei ere eskatu dizkiegu gauzak: egurrerzko opariak zurginei, negua bero-bero pasatzeko artilezko jantziak baserritarrei...

Olentzero: Jostailu zahar edo hondatuak hartu eta gure lagun galtzagarriekin batera konpontzen ere ematen dugu denbora. Opari bat, berria izatea baino, jostagarria izatea baita garrantzitsuenak!

Ikatza edo opariak, zer banatuko duzue gehiago?

Olentzero: Denetarik. Ikatza merezi duen jende asko dago munduan, baina guk Aiaraldeko etxeak opariz, ilusioz eta euskaraz betetzera gatoz.

Mari Domingi: Ikatza ez da berez txarra, neguan sua egin eta etxea berotzeko balio du. Ikatzak ere balio dezake ilusioa elikatzeko, bidea argitzeko, euskara pizteko.

Zer esango zeniekete oraindik zer opari eskatu ez dakienari?

Mari Domingi: Ba egongo dela hortik ilusioa piztuko dion zeo-

zer. Ez du zertan opari bat izan: familiarekin edo lagunekin igarotzeko denbora, aurrera begira jarraitzeko indarra... denetarik ekarri dezakegu!

24an Aiaraldeko kaleetatik ikusi ahalko zaituztegu?

Mari Domingi: Baaaai, noski! Urtero-urtero hartzen dugu parte Aiaraldeko herrietan antolatzen diren kalejiretan. Deialdi guztiak oraindik lotuta ez dauden arren, ia herri guztietan egongo garela ziurtatu dezakegu.

Olentzero: Hala da, bai. Ilusio asko egiten digu aiaraldeko jendearekin batzeak. Familiak batera ikusten ditugu, lagunak koadrilan eta parrandan, giro polita sortzen da herrietako kaleetan.

Eta kaleetatik soilik ez, eskoletan ere egongo gara, gure ikazkin laguntzaileekin eta gure astoarekin batera.

Gabonak bukatuta, zer egiten dute Olentzero eta Mari Domingik?

Mari Domingi: Deskantsatu! Horrenbesteko lanaren ostean merezi dugu ta! Opor egun batzuk hartuko ditugu Olentzerok eta biok, eta Mallorca aldera joango gara, eguzkia hartu eta hondartzan bainatzera.

Olentzero: Hala da! Baina, negua pasatu arren, gabonetan sustatzen ditugun baloreak bultzatzen jarrituko dugu Mari Domingik eta biok: elkartasuna eta euskara. Gabonetan bereziki nabarmenak egiten diren baloreak izan arren, urte osoan zehar piztuta mantendu beharrekoak dira eta!

Hiztegia: makala ⁽¹⁾, erroza; trakets ⁽²⁾ habilidade gutxiarekin eginikoa

“Ikatzaz ez da berez txarra, neguan sua egin eta etxea berotzeko balio du”

“Ez du zertan opari bat izan: familiarekin edo lagunekin igarotzeko denbora, aurrera begira jarraitzeko indarra... denetarik ekarri dezakegu!”

“Negua igarota, gabonetan sustatzen ditugun baloreak zabaltzen jarraituko dugu: elkartasuna eta euskara”

Mari Domingi eta Olentzeroren bisitak

ABENDUAK 20

18:30 Arakaldo
Olentzeroren bisita
Iturriaga auzoan

16:00-18:00 Luiaondo
Mari Domingik gutunak jasoko ditu
Santo Domingo zelaian

ABENDUAK 21

18:30 Artziniega
Ikazkinari harrera eta Olentzerorentzako gutunen bilketa
Etnografia museoan

ABENDUAK 24

16:00 Amurrio
Olentzeroren bisita
Zubibarri zubia

16:30 Orozko
Olentzero eta Mari Domingiren kalejira
Herriko Plazatik abiatuta (ondoren 18:00etan Olentzerori harrera Museoan)

16:30 Okondo
Olentzerori ongietorria
Ventillan

17:00 Luiaondo
Olentzeroren ibilaldia herrian zehar
Zubibarri zubitik (18:30tan harrera egingo zaio pilotalekuan)

17:30 Urduña
Olentzero eta Mari Domingiren kalejira
Kultur Etxetik

18:00 Arrankudiaga
Olentzerori ongietorria
Frontoian

18:00 Artziniega
Olentzeroren kalejira
Geltoki Plazatik Goiko Plazara

18:00 Laudio
Olentzero eta Mari Domingiren kalejira
Lamuza Parkea

Olentzero pertsonaia, garai bateko ohituratik urruti

Jatorri paganoa du Olentzerok. Neguko solstizioari egiten zion erreferentzia (Oles-aroa), eta pertsonaia beldurgarri bat bezala irudikatzen zen leku askotan.



Aiaraldea bisitatuko dute Olentzerok eta Mari Domingik.. Argazkia: aiaraldea.com

ERREDAKZIOA I

Bilakaera handia izan du olentzeroren figurak. Felix Mugurutzak historia ikerlariaren hitzetan, Lesaka inguruan topatu daitezke erreferentziarik zaharrenak. Olentzero, pertsonaia bat baino, aro bat izendatzen zuen: oles aroa. Neguko eta udako solstizioei egiten zien erreferentzia.

Garai bakoitzaren hasiera markatzeko sua pizteko ohitura zegoen. Kristautasunaren etorrerarekin batera, baina, aroa eta ohitura pertsonaia baten forma hartu zuten. Baina ez zen gaur egun ezagutzen den ikazkina.

Leku batzuetan etxez etxe zioan gizon mozkorki eta beldurgarri bat

bezala irudikatzen zen. Gaur egun abesten diren abestietan oraindik topatu daiteke jatorrizko pertsonaiaren arrastoa: “Olentzero buru handia entendimentuz jantzia (abestiaren beste bertsio batzuen arabera “entendimendu gabia”) bart arrastian edan omen du hamar arroko zahagia”.

Frankismo ostean, mugimendu euskaltzaleak indartu egin zuen olentzeroren figura, gaur egun erabiltzen den Noel aitaren edo Errege Magoen pareko pertsonaia bilakatuz.



_kultura

KOMIKIGINTZA

“Ez nuen Galtzako mik komiki lehiaketan saririk jasotzea espero”

HAIZEA GANZEDO (Menoio, 1999) bigarren geratu da Euskal Herri mailako Galtzako mik komiki lehiaketan. Zaraobe Institutuan ikasten du Ganzedok, eta plastika ikasgai-ko lan bat bezala hasi zen komikia garatzen.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

**Nola bururatu zitzaizun Galtzako mik lehiaketara aurkezte-
tea?**

Pasa den urtean komikiak lan-
tzen aritu ginen Institutuan. Eta
aurten Gorkak, plastika irakas-
leak, komiki lehiaketa bat zegoe-
la esan zigun, eta aurreko ur-
tean egindakoa landuz aurkez-
tu ahalko ginatekeela. Hala, ko-
mikia gehiago landu genuen eta
aurkeztea erabaki nuen.

**Aurretik komikigintzan aritu-
takoa zara?**

Aiarako Jaien kartel lehiaketa-
ra behin baino gehiagotan aur-
keztu naiz, eta zenbaitetan ira-
bazi dut. Beti izan dut gustuko
marraztea, baina esango nuke
hau izan dela lehiaketa baterako
egin dudana lehen komikia. Uste
dut behin Gabonetarako lehiake-
ta baterako komiki bat aurkeztu
nuela, baina besterik ez.

**Lehiaketa batera aurkeztu du-
zun lehenbiziko enetariko komi-
kia izanda, saririk jasotzea es-
pero zenuen?**

Klaseko lan moduan aurkeztu
nuen komikia, eta ez nuen espe-
ro saririk jasotzea.

**Zer kontatu nahi
izan duzu komi-
kian?**

Komiki hau
iaz landu
nuen. Aita bat
da protagoni-
sta, bere

*“Beti izan
dut gustuko
marraztea, baina
esango nuke hau
izan dela lehiaketa
baterako egin
dudana lehen
komikia”*

*“Nire aitarengan
oinarritu nintzen
pixka bat; berak
asko bidaiatu
duelako eta niri
eta nire nebari
asko gustatzen
zaigulako bere
bidaiei istorioak
entzutea”*

seme-alabei bidaiei buruzko isto-
rioak kontatzen dizkiena. Nire ai-
tan oinarritu nintzen pixka bat;
berak asko bidaiatu duelako eta
niri eta nire nebari asko gusta-
tzen zaigulako bere bidaiei isto-
rioak entzutea.

**Istoria izanda, komikia egin
behar. Nolako da prozesua?**

Bai. Komikiaren istorioa bere
umeei ipuin bat kontatzen ari
dien aita batena da. Bere bidaiei
buruz hasten da hitz egiten aita.
Hori kontatzeko bokata (komi-
kietan elkarriketak sartzeko
erabiltzen den elementua) han-
di bat zabaltzen da, eta bertan
bere esperientziak kontatzen
ditu. Komikia honakoa esaten
amaitzen dira: Aitaren bidaia ga-
rrantzitsuena bere seme-alabe-
kin hasi duena dela.

**Klaserako lan bat izan arren,
klaseko lan bat baino gehiago
bilakatu zen, ez?**

Hasieran bai, klaseko lan mo-
duan hartu nuen, baina denbo-
ra libre a nuen hobetzen saia-
tu nintzen. Zirriborro asko egin
nituen, bilatzen nengilena lor-
tu arte.

**Istoria egitea edo marraztea,
zer duzu nahiago?**

Biak. Alde batetik uste dut ga-
rrantzitsua dela istorioa ondo ja-
katea komiki on bat egin ahal iza-
teko. Baina, beste aldetik, aur-
kezpen on bat izatea garrantzi-
tsua da baita.

**Lortutako emaitza ikusita, ko-
miki gehiago egitera animatuko
zara etorkizunean?**

Ez dakit. Lortutakoa ikusita,
agian bai.

+info: BIDEOA
Haizean
Ganzedori
elkarriketa



Arabako ALEA astero, Aiaraldea Komunikazio Leihoarekin elkarlanean

ERREDAKZIOA |

Iragan azaroaren 29an aurkeztu
zen ALEA Arabako aldizkaria
Gazteizko Oihaneder Euskara-
ren Etxean. GEU Gazteiz Euska-
ra elkarteak, Goienak eta Berria
komunikabideak izan dira proiektu
komunikatibo berriaren susta-
tzaileak.

Euskara hutsez idatzitako aste-
karia izango da ALEA, eta Araba
mailan “euskararen erabilera eta
presentzia areagotzea” eta eus-
karazko informazioaren bitartez
“lurraldeko hohesioatzea” izango
du helburu, proiektuaren bultza-
tzailearen hitzetan. “Araba mai-
lan euskarazko tokiko hedabi-
deen hutsuneari aurrea egiteko
sortua izan da”.

Kalean dago jada 0. alea. Lehen
biziko alea izanagatik doan bana-
tuko da lurralde osoan, “era ma-
siboan”. Aldizkariaren 65.000 ko-
pia egin dira horretarako. Araba-
ren baitan dauden Aiaraldeko he-
rrietan ere banatuko da agerka-
ria, Aiaraldea egunkariaren ale
honekin batera.

Aiaraldea Komunikazio Leiho-
ko kideek egingo dute lan hori;
9000 kopia Aiarako Koadrila

osoan, guztira. Arabako koadri-
len inguruko informazio orokorra
topatu daiteke lehen ale horre-
tan, proiektuaren aurkezpen oro-
kor batekin batera. Alearen hu-
rrongo zenbakia irakurtzeko, bai-
na, datorren urtera arte itxaron
beharko da: Urtearraren 16an ka-
leratuko da alearen 1. alea. 32 orri
izango ditu, denak koloretan, eta
lurraldeko koadrila guztien berri
jasoko da bertan. Aiaraldea Ko-
munikazio Leihoa arduratuko da
Audio, Amurrio, Urduña, Okon-
do eta Artziniegan jasotzen de-
naren berri emateaz, ostiralero.

Harpidetzak

0. alea egunkari honekin doan
lortu daitekeen arren, hurrengo
aleak jasotzeko harpidetza egin
beharko da. Urte bateko bazki-
detza 50 eurokoa da. Dena dela,
Aiaraldea Herri Elkargoko ki-
deek abantaila izango dute Alea
astero, jasotzeko, %20 gutxia-
go ordainduta (40 euro) harpi-
detu ahalko baitira. Horretara-
ko elkargoa@aiaraldea.eus hel-
bidera mezu bat bidali baino ez
da egin behar.





_kultura

_kultur leihoa



Txetxu Urkijo
ZINEMA

Interstellar

Zuzendariak: Christopher Nolan
Aktoreak: Matthew McConaughey, Anne Hathaway...
Iraupena: 169 minutu

Aste honetan Christopher Nolan zinemagile britaniarraren azken lana gomendatu nahiko nuke, "Interstellar" (2014) izeneko alegia. Horren handinahia den proiektubatean, noski, indargune asko aipagarriak diren bitartean, ahuleziak ere agerikoak dira. Betidanik kritika konstruktiboaren aldekoa izan naiz, horregatik alderdi positiboetan zentratuko naiz gehienbat, askotxo direnak bestalde!

Hasteko, pelikula ikusitakoan badago kontu bat liluratuta naukana. Baliteke zientzia fikziozinta bat egitea gizartearekiko kritikoa izanik? Nolan jaunak erantzuna dauka eta baiezkkoa da. Tankera honetako filmetan pentsatzen hasita, herriki-dea duen Ken Loachen izena izaten da lehena burura etortzen, baina Nolanen azken antelan hau ez da atzean gelditzen, ez horixe!

Beste alde batetik, nire ustez behintzat, filme honek beste kontu batean asmatzen du bete-betean. Gidoiak darabilen gaia sano zaila da inolako zalantzarik gabe: zulo beltzak, erlatibitatearen teoria... hori guztia iruditzen ematea erronka zinez gaiztoa da. Ideia erabat teoriakoak dira, ez dugu kontzeptu horien guztien inguruko inolako nabaritasun fisikorik. Hala eta guztiz ere, Nolan ederto moldatzen daukertze hutsak lana ematen duen ideia horiek pantailaratzeko unea.

Filma Audioko LHUIn proiektatuko da abenduaren 27an.

Muduko ia 1500 jaiotza, Santxotena museoan ikusgai



ERREDAKZIOA I
Unai Gotxi Kastrexana

Munduko Jaiotzen erakusketazabalik dago jada, Santxotena museo-tailerrean. Aurtengoa XVI. edizioa da eta berritasunekin dator: lazbaino 200 jaiotza berri gehiago aurkeztu dira, 1.473 hain zuzen ere.

Berritasunik nabarmenena, Artziniegari egiten zaion omenaldia- ren jaiotzan Arteko Santutegia- ren oholatzako irudi bat agertzen dela da.

Horretaz gain, munduko herrialde ia guztien jaiotzak aurki daitezke, forma, estetika, lokalizazio eta material ezberdinez osatuta. Hala, eredu tradizionalarekin apurtzen duten jaiotza Afrikarrak edo Kaktusez egindako jaiotza Latinoamerikarrak ikus litezke. Jaiotzak kultura ezberdinen irudikapenak direla adieraziz, kultura ezberdinak erakustea da asmoa.

Erakusketa ikusgai dago ostegunetik igandera 11.30tatik 13.30tara eta 16.00tatik 19.00tara, urtarillaren 31rarte.

Muntai Onenaren Saria jaso du Aimara antzerki taldeak

ERREDAKZIOA I

Muntai Onenaren Saria jaso du Aimara antzerki taldeak Rivas Vaciamadrid-eko antzerki amateur jaialdiaren XIX. edizioan, "Yo soy la revolución" lanagatik. Taldeko kide den Raul Garcia antzezle onenaren sarirako izendatua izan da baita.



Gaur egun ia 50 kide ditu arloteen taldeak. Argazkia: aiaraldea.com

Arloteen mende Erdiko historia liburu batean jaso dute

ERREDAKZIOA I

50 urte bete zituen iaz Audioko Los Arlotes taldeak. Hori dela eta, taldearen historia lantzen duen liburua argitaratu dute. Iragan igandean (abenduak 14), aurkeztu zuten Audioko Lanbide Heziketa Udal Ikastetxean.

168 orriko liburua da plaza-

ratu dutena, eta egilea arloteen lehen lehendakaria izandako Joseba Andoni Ibarrola bada ere, elkarteko kide guztiek hartu dute parte proiektuan.

"Los Arlotes de Audio y Ruperto Urkijo" da liburua- ren izena. Izenburuak adierazten duen

bezala, estua da abeslari taldearen eta konpositore audio- rren arteko harremana. "Gure asmoa betidanik izan da Ruperto Urkijoren abestiak mantentzea". Hala adierazi zuen taldeko kide den Eugenio Arbaizagoitiak 50. urteurrenaren harira egini- ko elkarriketa.

Arlote taldeak 1963. urtean hasi zuen bere ibilbidea. "Gu baino lehen existitu zen talde baten ereduia izan genuen horretarako. Berez, Arlote izena lapurtu genion 50. hamarkadan egondako talde horri", azaldu du Arbaizagoitiak. Baina Arloteen historian urte berezibat egotekotan hori 1965 dela azaldu du taldeko kideak: "Ruperto Urkijok 90 urte bete zituen eta omenaldia egin genion. Omenaldian parte hartu zuten Audioko jende orok, oso gizon maitatua baitzen Ruperto".

la 50 kide

Garai horietatik hona makinabat aldi atera dira Audioko kaleetatik abestera. Gaur egun ia 50 kide ditu taldeak, eta astero bildu ohi dira abestiak entseatzeko. Gasteiz aritu izan dira abesten, eta baita Orozkon eta Gorbeia-ko Mairu- legorretako kobazuloan ere. Hala ere, emanaldi puntualak izan dira horiek, gehienetan Audioko mugatu baitute euren jardura- ere- muia. Hortaz gain, Ruperto Urkijoren gaztelarazko abestiak kantatzeaz aparte, euskarazko zenbait kantu herriko abesteari ere ekin diote berriki.

BEAT Elkarteak aurkeztu dute, musika elektronikoa sustatzeko



ERREDAKZIOA I

BEAT Musika Elkarteak aurkeztu zuten Audioko iragan larunbatean (abenduak 13). Arratsaldean makina bat ekintza gozatzeko aukera egon zen Aldekoerreka Plazan: umeentzako tailer eta puzgarriak (Kirikiño taldearen eskutik), collage erakusketa eta tailerra, zumba tailerra, DJ tailer eta emanaldia. Aurkeztu zuten festak Audioko Gazte- txean jarraitu zuen gauean, elkar- teko DJ- en eskutik.

*info: BIDEOA

BEAT Musika
Elkartearen
aurkezpena



Edorta Moreno
HISTORIALARIA

_Lurpetik

Neolitikoko iraultza

Neolitoa dugu, industrializazioarekin batera, gizadiaren historian aldaketarik sakonenak ekarri izan zituen iraultza nagusia. Une horretara arte talde txikietan banatuta ehiza eta bilketari esker bizirautea zen gure espezieak nekazaritza eta abeltzaintza aurkitu zituen eta, ondorioz, aberastasun ekoizpenak nola jabetza metaketa eta kontzentrazioak sekulako azelerazioa bizi izan zuten, pixkanaka jabetza kontzentrazio hark klaseen sorrera, banaketa eta hauen arteko borroka ekarri zuen. Lehen, ehiztari-biltzaile aske zirenak luraren jabeen esklabo bilakatuz joan ziren belatunaldi eta menden joan etorriaren poderioz. Hasiera batean, klan eta tribue- tan egituraturiko gizarte berdinezale horren errautsetatik jabetu- nen tresna izango zen estatua joan zen jaiotzen.

Giza gainegiturari dagokionez, neolitoak, hau da, gizarte oinarri ekonomikoaren eraldaketak, eraldaketa sakonak ekarri zituen, erlijioa klase-banaketa prozesu horren justifikatzaile eta zilegitzaile bilakatu zelarik. Ez da harritzekoa garai honetakoak izatea, ares- tian aipaturiko prozesu guzti hori aurrera zihoanekoak, Kristo au- rreko laugarren edo bosgarren milurtekoak, Europa Mendebal- de guztian, baita Euskal Herrian, mendi-zelaietan nonahi aurki dai- tezkeen trikuharri, menhir edo mairubaratzak. Neolitoko komuni- tateetako buruzagien hilobi. Aiaraldea inguruetatik megalitismo honen adibide franko aurki daitezke, Gorbeia aldean batik bat. Ga- bonetan, eguzkia laino artetik ateratzera ausartzen bada, egizue txangotxo bat eta egin bisitatxoa Kurtzegan, Abaroa, Larraluze, Egileor, Arlobi edo Pagozarretako jentilarriei. Ikusgarriak dira.

_Iruditan



Amurrioko Antzokia bete egin zen Aiaraldea Komunikazio Leihok antolatutako ENE BEGIAK EME ikuskizunean. Eskualdeko 40 artistek hartu zuten parte. Argazkia: Zuriñe Alava

_kirola

LAUDIOKO KROSA: 30 edizio mundu mailako zita auzolanean antolatzen

Krisia dela medio maila jaitsi behar izan duen arren, urte askotan zehar munduko kros onenen artean egon da Laudioko Krosa. Edizio jendetsuenetan ia 1000 parte hartzaile izatera iritsi da, Munduko zein Olinpiar Jokoetako txapeladun ugari tartean. Ez da gutxi boluntarioek Ellakuriko zelaietan auzolanean antolatutako ekimena izateko.

ERREDAKZIOA I

Iragan igandean (abenduak 14) ospatu zen Laudioko Krosaren XXX. edizioa. Zifra borobila, ibilbide oparoa izan duen zita batentzat. Laudioko Atletismo Kluba eratu eta bost urtera egin zen krosaren lehen edizioa, 1985eko otsailan. "Aurreko urteetan lasterketa herrikoi bat antolatzen aritu ginen", oroitu du 2009ra arte klubeko lehendakaria izandako Javier Apariciok, "baina halako lasterketen booma bukatu zenean, beste zerbait egitea erabaki genuen, hala sortu zen krosaren ideia".

Esan eta egin. Bigarren edizio-rako ez zuten urtebete itxaron, 1985eko abenduan egin baitzuten. "Abenduan, neguko lasterketen denboraldi hasieran, finkatu nahi genuen lasterketa", azaldu du Apariciok. Lasterketaren ospearen igoera "oso azkarra" izan dela gaineratu du lehendakari ohiak: hirugarren edizioan Portugaleko korrikalari batzuk parte hartu zuten, eta nazioarteko kros bilakatu zen horrela.

Baina urterik entzutetsuena 1988a izan zen, Aparicioaren arabera. "Maila handiko korrikalariak niatar batzuek parte hartu zuten, eta ikusmira berezia sortu zuten herritarren artean. Ellakuriko zelaietara jende gehien bertaratu zen urtea izan zen".

Orduz geroztik ugariak izan dira Laudioko Krosak hautsi dituen markak: 7-8 urtez egon zen IAAF kategorian (munduko kros onenen maila gorenean) eta 1998 eta 2001 urteetan estatuko kros onena izendatu zuen Espainiako Federazioak.

Horrek ondorioak izan zituen parte hartzaile eta bisitari kopuruetan. "Garaionenetan 800-1000 parte hartzaile eta 2000-2500 ikusle izatera iritsi gara", azaldu du Apariciok, "Erreferente bat izan da. Egon da Laudio krosa dela eta ezagutu duen jendea". Munduko txapelketetan eta Olinpiar Jokoetan garaile ateratako hainbat atleta ere aritu izan dira Laudio korrika. Oso marka altuak, are gehiago boluntarioek auzolanean antolatutako ekimen bat dela kontuan hartuta.

Berriz altxatzeko prest

Baina Laudioko Krosa ez da garai batean izan zena. "Krisiak eragina izan du", adierazi du Apariciok. Gaur egun klubeko lehendakaria den Jabi Muñozek ere bat egiten du baieztapen horrekin: "dugun aurrekontua oso txikia da mundu



1985ean lehen edizioa ospatu zenetik milaka izan dira krosaren parte hartu duten korrikalariak. Argazkia: Laudioko Atletismo Kluba

SAILKAPENAK



SENIOR ETA PROMESEN KATEGORIAN

Emakumezkoak

1. Vanesa Patxa Urteaga
2. Iraia Gartzia Etxebarria
3. Ibone Sanchez Garmendia

Gizonezkoak

1. David Garcia Gil
2. Noureddyne El Hachoumi
3. Josu Apraiz Etxezarraga

-mailako korrikalariak ekartzeko". Gauzak hala, erkidego mailako lasterketa bat izatera mugatu behar izan dute, baina Muñozek aurreratu du krosa berriz altxatzeko asmoa dutela. Berriz estatu mailako krosa izatea dute xede. "Ea instituzioek gehiago lagunduta lortze-rik dugun".

+info: Krosaren argazki zaharren bilduma



Ibone Sanchez eta Josu Apraiz audioarrak, Senior kategorian hirugarren



3. postua lortu zuen Ibone Sanchezek (eskuman). Argazkia: aiaraaldea.com

ERREDAKZIOA I

Ehundaka korrikalarik hartu zuten parte Laudioko Krosaren XXX. edizioan. Ohikoan bezala, lokatza izan zen nagusi ibilbide osoan zehar, baina hori ez zen oztopo izan Ellakuri zelaietan zehar aritu izan ziren kirolarientzat.

Hamarretatik eguerdiko ordubietara arte iraun zuen goizak, eta kategoria ugariaren arteko lehia ikusteko parada egon zen.

Senior kategorian korrikalari aiaraldearrek eginiko lana azpimarratu beharra dago. Ibone Sanchez eta Josu Apraiz kirolari audioarrek hirugarren postua lortu baitzuten emakumezkoen eta gizonezkoen kategorietan, hurrenez hurren.

Korrikalari baten heriotza

Eguna, baina, beltza izan zen Ellakuriko zelaietan, korrikalari kantabriar bat hil baitzen. Jose Maria Gomez zen hildakoaren izena, eta 54 urte zituen. Krosaren parte hartzen ari zela ondoezik sentitu zen eta lasterketa utzi behar izan zuen. Aldagietarako bidean zioala lurrera erori zen, eta gurutze gorriko ki-deak ordu betez bera artatzen saiatu ziren arren, ez zuten gizonaren bizitza salbatzea lortu. Hori dela eta, minutu bateko isil-luneak egin zituzten hurrengo proba guztien hasieran.

+info:
BIDEOA
Laudioko
XXX. Krosa



GAIZKA

Barañano
LASTERKARIA

_Helmugari so

Berbalaguna
menditik korrika

Euskara praktikatze-ko euskaldun berrien ohiko beldurretako bat hau-ze izaten da: euskara menderatzen duen jendearekin edo jendaurrean hitz egitea, eta, ondorioz, hizkuntza-erikiko kontrol falta sentitzea.

Euskara nork dakien ez jakitea izan ohi da gure hizkuntza erabiltzeko beste arazo bat.

Oztopo hauek saihestu eta euskararen erabilera bermatzeko sortu zen Berbalagun egitasmoa.

Berbalagunak euskarra maila desberdina duten pertsonen osatutako taldeak dira; horien helburu bakarra euskara praktikatzea eta euskaraz bizitzea da, astero jarduera zehatz bat eginez.

Amurrión, urte batzuk dira ekintzak antolatzen dituztela, eta horregatik, egitasmo horiek eta mendiko lasterketen booma aprobe-txatuaz, berbalagun egitasmoa hasi zen duela hilabete, menditik korrika eginez.

Jardueraren ideia honakoa da: larunbatero, goizeko 9etan, gasolindegian ondoan geratzea Babiora igo eta jaisteko (motelenaren erritmoan, batzuetan korrika eta besteetan oinez), baina den-dena euskaraz.

Eta nola ez, honetarako ere whatsapp taldea daukagu. Beraz, animatu zaitez eta etor zaitez mendira euskaraz!!! (Whatsapp antolatzailerak: 672457635)



_kirola

TXIRRINDULARITZA: Luisa Ibarrola saratxoarra garaile Igorreko ziklo-krosean

Luisa Ibarrolak lehen postua eskuratu du Igorreko ziklo-krosean. Espainiako Koparen irabazlea izan den Saioa Gili azken momentuan aurreratuz lortu zuen Ibarrolak garaipena. Ez da lortzen duen lehen marka izan: iragan uztai-lean 8. postua lortu zuen Espainia mailako eskolarteko txapelketan.



SASKIBALOIA: Euskadiko Junior Eskubaloi txapelketarekin ekin dio Amurrioko Zaroabe Klubak bere hogeita hamargarren urteurrena ospatzeari

Hilabete honetan 30 urte betetzen dira Amurrioko Zaroabe Saskibaloi Kluba sortu zenetik. Hori ospatzeko ekintza sorta prestatu dute klubeko kideek.

Lehenekintzairaganabenduaren 6tik 8ra bitartean egin zen Euskadiko Junior kategoriako saskibalo txapelketa izan zen, Bañueta kirol-

degian jokatu zena. Hurrengo jardueraurtero egin den Gabonetako Torneo izango da; ohikoan bezala, abenduaren 26tik 30rabitartean egingo dena.

Txapelketa horren lehen edizioa (1984. urtean jokatutakoa) izan zen, hain zuzen, klubaren sorreraren abiapuntua



Euskal Herriko hainbat txokotako jokariak arituko dira Aretan /aiaraldea.com

Aretako Eskupilota Txapelketa, profesionalen harrobi

ERREDAKZIOA | Gentza Garcia Mendieta

Aretako frontoiak Herriarenak Pilota Elkartek antolatutako txapelketaren XIX. edizioaren lekukoa hartuko du urtearen amaierarekin bat. Aurten ere, ohiko legez, jubel eta senior kategorietan hitzartuko dira partehartzaileak eta torneotik at gaztetxo hasiberrientzako lekua egongo da ere.

Luis Urkijo, Herriarena Pilota Elkarteko kideak, aurtengo txapelketako maila altua azpimarratu nahi izan du, izan ere, partehartzaileetako asko hastear den urtean kategoriatik gorenarekin lehiatzeko prest egongo dira haren esanetan. Ildo beretik, Aretako eskupilota txapelketaren ezaugarri bereizgarri bat pilotarietako kantxaratzeko eskubidea frontoian bertan eskuratu behar dutela da, ez baitago aurreko kanporaketetik aparte selektzio prozesurik.

Torneoaren bilakaerari buruz ere mintzo da Urkijo, frontoiaren sasoi onaren alde eginez. "Profesionalen dauden erdiak hemendik (Aretatik) pasaizandira" dio, eta arrazoirik ez zaio falta. Horren isla, 2014ean frontoietik igarotako hiru pilotari gaztek eman izan duten profesionaletarako jauzia.

Urte hauetan guztietan txapelketak maila onaren bermea eskeini izan du eta jendarteko harrera txapela kentzekoa izan da era be-

rean. Laguntza hori ere eskertzea dela adierazi nahi izan du Luis Urkijok, Udaletxearen papera gogora ekarriaz eta tankerako torneo bat urtez urte antolatzea ahuntzaren gaurdiko ez tula ez dela azpimarratuz. Haren aburuz, "ez da aski diru kopuru jakin bat biltzearekin, pilotari onak biltzea beharrezkoa da, haiek hona etorri nahi izatea".

Hastear den aurtengo edizioan iparraldeko edota errioxako partehartzaileak ere jokoan ikusteko parada izango dute bertaratzen direnek, eta telebistak zein egunkarietako kirol jazoeren testingantza zuzena hartuko dute behingoan ere. Gainera, Herriarenak elkartetik ohiko arazo bati konponbidea ematen saiatu izan dira aurtengoan: "jubelaren kategorian arazotxo bat izan ohi dela uste dugu. Hauek 18 urte bete bezain pronto kategoriatik gorenarekin salto egiten dute baina horietako batzuk, ez denak noski, eskas iritsi daitezke hain laster nagusien artean lehiatzera. Hain zuzen ere horregatik kategoriatik hau 19 urtera arte luzatzea erabaki dugu".

Final laurdenak zehaztuta daude jada eta norgehiagokak arratsaldeko 18:00etan jarriko dira martxan hasiberri txikiekin, 19:30etatik aurrera Aretako torneooko lehiarako motorrak berotzen joateko.

ELKARGOKO BAZKIDEENTZAKO ESKAINTZAK AIARALDEA HERRI ELKARGOAK



ELKAR-EKIN TOKIKO MERKATARITZA EUSKARAZ SUSTATU

SAMSUNG TELEBISTA
32" hazbetekoa LED TV

280 € %15

EUSKO PC Informetika zerbitzuak
Zumalakarregi etorbidea 47 LAUDIO
Tel. 946087310

POLTSO HANDIAK
ESKUZ EGINDAKOAK

30 € %15

GOROBI Eskuz egindako diseinua
ARRANKUDIA G.A. Tel. 619 23 95 80
gorobi.blogspot.com

5 HORMA-EGUTEGI
personalizatuak 32x45cm

%30 41 €

ADIZENTRO GRAFIKOA
Maskunbail Kalea, 10, AMURRIO, Araba. Tel. 945 89 08 46

BOTOX-a ILEAN
ILEA SENDOTZEKO TRATAMENDUA

10 € %20

ENEAN ILEPAINDEGIA
Baila kalea 6, Aizkaldea, LAUDIO
Tel. 94 643 52 60

ARABAKO ALEA ASTEKARIAREN HARPIDETZA
Urteko harpidetza, 44 zenbaki jasoko dituzu etxean urtero.

%20 40 €

AIARALDEA KOMUNIKAZIO LEHIOA
Nerbioi kalea 1, 3. esk. 01400 LAUDIO, Araba
Tel. 669 83 57 87 elkargoa@aiaraldea.eus

ELKARGOKO BAZKIDE IZATEAK ONURAK DITU IZAN ZAITEZ ZU ERE BAZKIDE



BATU ZURE ENERGIA EUSKARAREN ELKARGOAN

Ⓢ DENBORA EMAN Ⓢ DIRUA EMAN

DEI GAITZAZU ETA AZALDUKO
DIZUGU NOLA EGIN BAZKIDE: **688 647 942**
EDO EGIN EZAZU ZUK WEB-GUNE HONETAN:
elkargoa.aiaraldea.com

AIARALDEA HERRI ELKARGOAK

Aiaraldea Herri Elkargoko bazkide izateko diru edo denbora ekarpen bat egin duten pertsonak gorago zehazten diren saltoki horietako eskaintzak probestu ahal izango dituzte.

Nola eskuratu eskaintza

Eskaintza iragarri duen saltokira joan eta Elkargoko bazkide txartela erakustea nahikoa izango da zehaztutako produktu edo zerbitzuan deskontua jasotzeko.

Epea

Hemen argitaratutako eskaintzak probesteko epea Urtearen 07an amaituko da. Hurrengo hamabostaldian, egunkariaren argitaratzearekin batera eskaintza berriak izango dira eskuragarri.

Eskaintzen inguruko informazio zehatzagoa topatuko duzu **elkargoa.aiaraldea.com** web-gunean.



_Herriko plaza

_agurrak



Irune

Zorionak Iruunetxu!! disfrutatu zure 14. urteak!!! Maite zaitugu!

Amaia, Izarra eta Jon Masa



Urtzi

Zorional Urtzitxikia!!!!!!! Urteak pasa ahala gero eta bihurriagoa zara. Bejon daizula!!!!

Senideak



Igor

Txorizo onak Antiparrak! Gazte sentitu urteak aurrera doaz. Segi gaztetasun sentimentu horrekin!

Lagunak



Izar eta Aiur

Neskato eta mutiko handiak egin zarete. Hiru urte!!! Zorionak!! Marrubi ta txokolatezko muxutxuak!

Etxeakoak



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera urtarilaren 9a baino lehen.

_#sexgatik (:><:)


HIESA homosexualen kontua al da? (Ekaitz)

Hiesa GIBak, Giza Immuno- eskasiaren Birusa, sorturiko infekzioa da. Horren ondorioz, sistema immunologikoa hondatzen da. Hortaz, gorputza gaixotasunen aurrean defentsa gabe uzten du. Zelularen kode genetikoan ugaltzen denean pertsona hori GIBduna da, hau da, zeropositiboa.

Atzera egin ez gero, ihesari atxikitutako lehenengo izena homosexualen minbizia edo minbizi arrosa izan zela konturatu gara. Ederki orduan lasai asko geratu naiz. Besteen kontua = homosexualen kontua! Egundoko estigmatizazioa duen gaixotasuna da. Proba egin, hiesa aipatu eta berehala estigma sozialarekin egingo duzu topo, eta ondorioz, estigma propioarekin ere bai. Komun publiko batean transmititu daitekeela pentsatzen duen jendartearen zati handi bat, GIBdun pertsonekin harremana saihestuko luketen norbanakoak, GIBdun ume batekin gure seme- alabak eskolaratzea? Beraz, GIBdunen estigma propioaren sorrerarekin egingo duzu topo, atzamarrarekin seinalatua ez izateko eta horrek ekarriko lukeen bazterketa ekiditeko, gaixotasuna ez onartzea. Estigmatizatuz, euren burua bigarren mailako bizilagun izendatuz. Horrek guztiak beldurra dakar. Eta beldurrak estigma. Baina egiatan besteen kontua da? Edo gu guztien kontua?

[Bidali zure galdera sexgatik@aiaraldea.eus helbidera!] **Julene Onaindia Garcia**

_denborapasak



EZKER-ESKUIN

1. Halaxe esaten diote udazkenari ez soilik Bizkaia aldean. 2. Halakoak izan ohi ditugududa-mudatanibiltzen garenean. 3. Eragozpena edo oztopoa daber horretan. Forma hau hartzen du ate hitzak hitz elkartzeetan. 4. Inor agurtzeko erabiltzen dugun diosala hitza. Agurtzeko erabili ohi dugun beste hitza. 5. Antzinako Egiptoko jainkoa, Eguzkiaren jainkoa bera. Izadia. 6. Bizkaieraz, iratzea, garoa. Luzera-neurri zaharra, egun batez ere enborrak neurtzeko erabilia. 7. Euren bizialdian horrelakoetan egon ohi dira ibilgailuak ez gutxitan; beraz, ez ezazu muga. Musika nota, eskalan seigarrena. 8. Azkenekoa. Eraikin baten barruan pareta edo galeriaz itxikako espazio. Kontsonantea. 9. Zango askoren jabe da intsektu mota hau.

GOITIK-BEHERA

1. Lapurdiko erdialdeko udalerria, Errobi ibaiaren bi aldeetara. 2. Ikararen isla. Hizimutua. 3. Pozik, kontent. Aipamen. 4. Afrikako mendebaldeko errepublika. Behar, egiteko, eginkizun. 5. Egokia eta onuragarria da. Ernaltzeko zerri ar, ordots, apote. 6. Idi, hitz elkartzeetan. Ateingurua. 7. Halakoxeak dira ezagutzen diren pertsonak eta gauzak; beraz, ez ezazu muga. Ezer piztuta edo abian dagoela adierazteko hitz ingeleza. 8. Berezko. Kontsonantea. 9. Lorategietan hazten den landarea, liliaceae familiakoa, loreak, zuriak eta oso usain gozokoak. Garai, aldi.

		3	4	2				7
2				7	9		8	3
5					8			6
6	8	9	5	3				
	5	2		4	6	7		
			1	2				5
3		8					5	
4		5						9
				5	2			

	7	9			3			
9	5	3	2	4				
2	4	3			8	9		
			2			3		
				5	4	6	8	
		8	4					
		4	5				6	
		1	2					
1	6			9	5			

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.com/users/denborapasak>



_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Bakarrik sentitzen zara, bakar-dadearen arrazoa besteen elkarren arteko antzagatik dela uste duzu. Zoritzarra gurea, nahiz eta pertsona bakoitza berezia izan, antzekoak gara. Saia zaitez zure izaera besteek erakusten, ondo datorkizu eta!



HERENSUGE

03.21-04.20

Alferrak gara. Alfetzeria da gure akats nabarmena. Egunez gizartea zer tan bihurtu den kritikatzin duzu. Baina zure burua zalantzan al duzu? Denok ari gara sistema hau elikatzen, ezberdina zara ala?



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Sentitzen duzun esatea beharrezkoa da, baina mugak non dauden ikasi behar duzu. Pertsonak agobiatzea ez da irtenbidea. Ez diozu inori zer egin behar duzun esaten uzten, nork eman dizu orduan baimena zeuk egiteko?



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Zenbatetan errepikatu behar dituzte zure jarrera besteak mintzen dituela? Hitzek ez daukate garrantzirik, ezta? Horrela jarraituta ingurukoak nekaturko dituzu eta zurekin bidea egin beharrean beste bat aukeratzea bultzatuko dituzu.



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Harrituta utzi duzu olentzero! Zelako zerrenda! Hainbeste gauza eskatu ordez zergatik ez batekin konformatu? Ez al da hobeagoa gauza on bat izatea, deus ez balio duten asko izatea baino? Askok baduzu, asko beharko duzu.



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Gustora egoteko sena jarraitzen ikasi behar duzu. Lagunengan konfiantza izan behar duzu, baina guztiak ez dira gure sekretuen parte izan behar. Benetan lagun sentitzen dituzun horiei kontatuiezu sekretuak.



GALTZAGORRIAK

02.19-03.20

Musu bat, laztan bat... kontaktu fisikoa beharrezkoa da maitasuna adierazteko. Gaur hitza eman dezakezu, eta bihar haizeak eraman dezake, baina erakusten dituzun maitasun seinale horiek ez ditu inork ahaztuko, samurtasuna oparitzen saiatu.



LAMIA

04.21 - 05.20

Zure umorea eguraldiarekin bat dator. Udan ondo datorkizu ideiei hori baina gai izango zara sinismen horrekin neguaz gozatzin negarrean bukatu gabe? Kendu ideiei hori burutik, zure gogoak baitira umorea definituko dutenak.



BASANDERE

06.21 - 07.20

Nerbioak kontrolatzen saiatu beharko zenituzke. Buruko kontuak dira, ez dago kontrolatu ezin dezakegun ezer. Nerbioek osasunaren eragina daukate, lasaitu zaitez, bizitza harriz betetako bidea da salto indartsuekin gaindituko duzuna.



JENTILAK

08.22 - 09.22

Eztabaidan ematen dituzun egunak, bronka dagoen lekuetan zuzun agertzen zara. Arazoak konpontzeko nahi hori zure kontuatarako erabili, Ez gehiegi hitz egin, nahi ez baduzu huts egin ta gogoratu, bakoitzak bere astoari egiten diola arre!



MARI

10.23 - 11.22

Aterako zara etxetik? Beharbada betikoekin betiko lekuetan egoteaz aspertuta zaude, ez zaitez txarto sentitu, denok behar baitugu aire fresko apur bat. Zaila badirudi ere badaude pertsona ezberdinekin erlazionatzeko beste ekintza batzuk, saiatu!



SUGAAR

12.20 - 01.19

Gelditu arren! Juerga gogo guztiarekin bukatuko duzu eta! Gabonak bertan daude, izango dituzu osasuna urratzeko momentu bikainak! Utz itzazu neurona batzuk urte bukaera ospatzeko! Denbora daukazu gauza guztietarako!



_irakurlearen txokoa

_agenda

12.18 OSTEGUNA

17:30 AMURRIO
IPUIN KONTALARIA
Gabonetako ipuinak
Udal liburutegia

19:00 ARTZINIEGA
IKUSKIZUNA
Etxepare Rap
Etnografia Museoa

19:00 AMURRIO
KONTZERTUA
Udal Musika Eskola
Amurrio Antzokia

19:00 LAUDIO
AUZO BATZARRA
Erdigunea
Kultur Etxea

12.19 OSTIRALA

10:00 AMURRIO
GABONETAKO AZOKA
Juan Urrutia plaza

17:15 AMURRIO
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
Txo, mikmak txikia
Bañueta Kiroldegia

18:00 ARTZINIEGA
GASTRONOMIA
Gozogintza lehiaketa
Udalatxe zaharra

19:00 ARESPALDITZA
MUSIKA EMANALDIA
Kontzertu didaktikoa
Udalatxea

19:00 AMURRIO
KONTZERTUA
Udal Musika Eskola
Amurrio Antzokia

19:00 MENAGARAI
MUSIKA EMANALDIA
Itzalde Abesbatza
Amor Misericordioso
Ikastetxea

19:15 AMURRIO
PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS
Txo, mikmak txikia
Bañueta Kiroldegia

19:30 LAUDIO
CORTADA
Pelikula laburren jaialdia
Kepa Sojoren eskutik
Lanbide Heziketa Eskola

22:00 AMURRIO
KONTZERTUA
Gabai
Akeita Taberna

12.20 LARUNBATA

08:00 LAUDIO
TENIS
Eguberriko txapelketa
Gardeako kiroldegia

HAGINAREN SUTRAIAK AIARAN



12.20 LARUNBATA
Aginagako Batzar
Administratiboen egoitzan

- 10:15 Hitzaldiak: "30 urte
haginarekin lanean"
"Nafarroako hagin basoak"
- 12:15 Hagina landatzea
- 12:45 - 13:45 Hitzaldia
"Hagina Aiaraldea udalerrian"
- 13:45 - 14:15 Enrique
Arberasen "Las raíces del
tejo en Ayala" liburuaren
aurkezpena
- 14:30 Herri bazkaria

17:00 LUIAONDO
FRONTENIS
Txapelketa
Frontoia

18:00 LAUDIO
IKUSKIZUNA UMEENTZAT
Euskal mitologia
Basalarrina

22:30 AMURRIO
KONTZERTUA
Five Corners taldeak
diskoaren aurkezpena
Alanbiki Taberna

12.21 IGANDEA

10:00 LAUDIO
GABONETAKO AZOKA
Basalarrina antolaturik
Aldai Plaza

18:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Arte On eta Kantalai
Eskolaniak
Done Petri Eliza

12.22 ASTELEHENA

17:00 URDUÑA
IPUIN KONTALARIA
Ipuin berri on
Udal liburutegia

20:00 LAUDIO
KONTZERTUA
Antonio Oyarzabal eta
Triskel Arts
Done Petri Eliza

12.23 ASTEARTEA

17:00 TERTANGA
UMEENTZAKO AISIALDIA
Ginkana mitologikoa,
pailazoak, askaria
Tertangako Etxea

17:00 AMURRIO
HAURRENTZAKO MUSIKA
Bazen behin... espazioa
Frontoia

18:00 ARTZINIEGA
UMEENTZAKO TAILERRA
Animaliak ez dira
jostailuak
Frontoia

18:00 LAUDIO
KANTU KALEJIRA
Fi Ta Fik taldearekin
Herriko Plaza

12.24 ASTEAZKENA

00:30 LAUDIO
DJ GAUA
Aiaraldea Sound System
Gaztetxea

11.26 OSTIRALA

10:00 URDUÑA
IRTEERA
Igerilekuetara (3€)
Suhiltzaileak

11:00 ARTZINIEGA
BIZIKLETA MARTXA
Bizi festa, adin
guztientzako ibilbidea

11:00 LAUDIO
UMEENTZAKO AISIALDIA
Puzgarriak eta zirkio
jai-akrobatikoa
Aldai Plaza

18:00 LAUDIO
UMEENTZAKO MUSIKA
Disco festa
Aldai Plaza

19:00 URDUÑA
ODOLOSTE JANA
Peña La Baca antolaturik
Foru Plaza

19:00 LUIAONDO
BAKARRIZKETA
Esther Uria antzezlearen
eskutik
Gizarte Etxea

19:00 LANTENO
LIBURU AURKEZPENA
"Las raíces del tejo en
Ayala"

III. BERTSO SAIOA



12.26 OSTIRALA

Urduñako Gaztetxean
20:00 **Bertsolariak:**
Iñaki Apalategi, Malen
Amenabar, Jon Martin, Oihane
Perea, Eneko "Abarkas" eta
Iñigo Mantxizidor

Gai jartzailea: Asier Rubio

ZINEMA

12.20 LARUNBATA

"LA CAGE DOREÉ" LAUDIOKO
LANBIDE HEZIKETA ESKOLA
17:00etan eta 20:00etan (2 €)

12.21 IGANDEA

"WELCOME" LAUDIOKO
LANBIDE HEZIKETA ESKOLA
17:30etan eta 20:00etan (2 €)

"FRIENDS: ABENTURA
MUNSTROEN UHARTEAN"
AMURRIO ANTZOKIA 17:30etan
(3,60 €)

"FRENCH WOMEN" AMURRIO
ANTZOKIA 19:30etan (4,80 €)

12.22 ASTELEHENA

"FRENCH WOMEN" AMURRIO
ANTZOKIA 20:00etan (3,60 €)

12.26 OSTIRALA

"LA CAGE DOREÉ"
ARTZINIEGA MUSEOA
18:00etan

12.27 LARUNBATA

"INTERSTELLAR" LAUDIOKO
LANBIDE HEZIKETA ESKOLA
17:30etan eta 21:00 (3€)

"LA CAGE DOREÉ" AIARAKO
UDALETXEA 18:00etan

12.28 IGANDEA

"KAUWBOY" LAUDIOKO
LANBIDE HEZIKETA ESKOLA
17:30etan (2€)

"NIKO 2" AMURRIO ANTZOKIA
17:30etan (3,60 €)

"LOS JUEGOS DEL HAMBRE:
SINSAJO PARTE 1"
AMURRIO ANTZOKIA 19:30etan
(4,80€)

12.29 ASTELEHENA

"LOS JUEGOS DEL HAMBRE:
SINSAJO PARTE 1"
AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan
(3,60€)



PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 95.000 €
62 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldea,
balkoia, altzariz hornitua, eraberritzeko,
igogailua, trastelekua, negoziagarria.
Erref.: 167.545

PISUA SALGAI OKONDON
Prezioa: 125.000 €
84 m², 3 logela, bainugela, kanpoaldea,
sukaldea balkoiarekin, altzariz hornitua,
trastelekua, negoziagarria. Erref.: 167.346

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 185.000 €
78 m², 3 logela, bainugela, jakitokia, bi balkoi,
altzariz hornitua, eraberritua, kanpoaldea,
herrigunean. Erref.: 167.547

PISUA SALGAI ARTZINIEGAN
Prezioa: 129.000 €
90 m², 3 logela, bainugela, komuna, sukaldea
balkoiarekin, igogailua, altzariz hornitua,
igerilekua eta lorategia, negoziagarria.
Erref.: 167.548

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 210.000 € 60 m², 2 logela, 2
bainugela, eraikuntza erdi berria, igogailua,
trastelekua, garajea, tren geltokitik 5 minutura.
Erref.: 167.546



www.etxaurre.com

AMURRIO ANTZOKIA



ABENDUAK 18
KONTZERTUA:
CARMINE
BURANA
20:00
Sarrera: 5,00 €



ABENDUAK 20
GOSPEL KONTZERTUA:
"The sey sisters"
20:00
Sarrera: 6,00 €



ABENDUAK 27
DANTZA GALA
BENEFIKOA
18:00 eta 20:00etan
Sarrera: 7,00 €

Elexondo 26, Amurrio (Araba)
Tlfnoa: 945 89 14 50
www.amurrio.org



ABE 25 // **CAPSULA -**
BELAKO - NINA COYOTE
ETA CHICO TORNADO
20:00 (12 €)



ABE 26 // **LA LEÑERA**
+ Tributo a Leno
21:30 (8 + gastuak / 11 €)



ABE 27 // **SEGISMUNDO**
TOXICOMANO + Desakato
21:30 (10 / 12 € Disko opari)



ABE 31 // **AZKEN AFARIA**
ETA LEHEN GOSARIA
HALABEDirekin
22:30 (25 € afaria + kontzertua /
5 € gau osorako sarrera (kontzertua berrak))



URT 03 // **HABEAS CORPUS**
+ **CHILDRIN** + **COBRA**
19:30 (12 / 15 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/au

_ezin galdu



IZOTZ PISTA: Amurriozotz pista jarriko dute abenduaren 26tik 30era arte. 10x20 metroko zabalera izango du eta 35 lagunek izango dute aldi berean erabiltzeko aukera. Jarduera doakoa izan da eta 11:00etik 14:00ak arte eta 16:00etik 20:00ak arte irekiko dute.



IX. BECtekada: Amurrio Antzokiak berriro jasoko ditu Euskal Herriko Bertso Txapelketaren finalistak urte hasieran. Urtarrilaren 3an izango da saioa, 20:00etan, eta 8 euro balioko du sarrerak. Besteak beste Amets Arazalluz, Maialen Lujanbio edo Sustrai Colina bertsolariak arituko dira.



Itziar
Urkijo
PSIKOPEDAGOGOA

_Leihotik

Zergatik utzi kantatzeari

Urte bukaera erreflexioaren aitzaki izatearen tristemiaz hunkitzen nau, egunaren hogeitalau ordu eskasak, zaporerik gabeko momentuak, laburtzen doazen minutuak... bizitzaren erritmo eroak. Erlojuari so eta kantatzeko denborarik ez.

Gizartearen eskakizunak hori egitera behartzen gaituelakoan gaude, baina oker. Bizitzaren gerizpetan ahalik eta denbora gutxiengogotea da gomendagarriena, denborarekin, gerizpeak iluntasun planta hartzen duelako. Faltan botatzen zaitut, hogeitalau ordu eskas horietan, niretzat garrantzak diren momentuetan eta jada minutuak ez diren minutu horietan. Hemen egon beharko zinateke, gugana hurbildu, gure artean, gurekin, gure baitan... Denborarekin joan zinen, denbora bilakatu eta kantak eraman zenituen. Urrun zaudete eta hemen egon beharko zinateke. Berritako kantatuko dugulakoan nago, berritako kantatu nahi dut. Ezin diogu kantatzeari utzi, kantak zuregana hurbiltzen gaituelako. Ordorikaren akorde grabeak, Roseningeren leuntasuna eta Anje Duhalderen soinu bereziak... horra eta hona eramaten gaituztenak. Gozoa eta gazia aldi berean, bizitzaren erritmo eroaren moduan. Eta doinuen artean, urte bukaerako erreflexio kantatua; Zergatik utzi behar ote diot, zergatik utzi kantatzeari...

Esteban Moreno Muñoz

“Aurreko batean alkandora baten maukak erabili nituen collage bat egiteko”

ESTEBAN MORENO (Laudio, 1963) collage egilea eta DJa da. BEAT musika elkartearen aurkezpean bere lanak erakutsi ditu. Diogenesen sindrometik zerbait duela aitortu arren, ez du sortzeari uzteko asmorik.

ERREDAKZIOA I

Zergatik collagea?

Beti egin ditut collageak, baina orain arte neuretzako egin izan ditut. Orain hasi naiz publikoari begira egiten. Lehendik ere erakusketaren bat edo beste egin neukan, baina ez nuen oso serio egiten. Baina orain langabezian nagoenez honetan nago, jo ta su!

Nondik eskuratzen duzu collageak egiteko materiala?



Zaborretik hartutako materiala birziklatzen dut. Garbigunean hila-betea behin gutxienez sartzeko baimena eskatu nahi diot Udalarari, hortik nire collageen oinarri diren egur-xafak hartzeko.

Eta irudiak, nondik eskuratzen dituzu?

Zinema kartelak erabiltzen ditut collage handietarako. Txikietak, berriz, Mondo Sonoro, Karma eta antzeko aldizkariak. Ahal izatekotan doan lortu daitezkeenak, jeje.

Zenbat collage egin dituzu orain arte? Kopuru bat emate-rik bai?

Iragan ostiral gauean 14 egin nituen, larunbatean egin zen BEAT musika elkartearen aurkezpean esposatzeko. Lau logelan, beste lau egongela... pintura eman, berniza eman... gaur osoa lanean, bukatu nituen arte.

Egin dituzun guztien artean, bago bereziki maite duzun lanik?

Aurreko batean alkandora baten maukak erabili nituen collage bat egiteko. Kontuz eginda eta ongi moztuta edozer gauza egin daiteke. Nire logelako mahaia eta altzariak ere collage bilakatu ditut.

DJa ere bazara...

DJa baino musikagatik kutsatua dagoen norbait naizela esango nuke, jeje. Txikia nintzenean zinta kasette bereziak

nahasteko ohitura neukan: autoan jartzeko, neskalagunarentzako... Gaur egun flamenkoa, teknoa, punka... egunaren arabera gauza bat edo beste bat entzuten dut.

Horrenbeste collagerekin, leku falta izango duzu...

Ba bai, jeje. Ikusi duzu nola dudan etxea. Tailer eta biltegi beharra daukat.

Diogenesen sindromea duzula dirudi...

Egunkari banatzaile moduan lan egiten nuen garai batez, eta banaketa furgonetarekin harriak biltzen hasi nintzen, eskulturak egiteko. Lonja bat alokatu nuen harri guzti horiek gordetzeko, eta 15.000 kilo harri biltzera iritsi nintzen. Lonjaren aurrean iturri bat egin nuen, harrietako batzuk baliatuta. Baina lonjaren jabeak bertatik bota ninduen, eta bilduma bota behar izan nuen. Bai, badut sindrome horretatik zerbait. Baina artisau guztiek dugun zerbait delakoan nago.

Konpromisoa

gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin

